

5.a	1. JARDUERA FITXA	OBJEKU TEKNIKOAREN FUNTZIONAMENDUAREN AZTERKETA ETA DISEINUA Funtzioak	
------------	----------------------------------	---	---

EZAGUTZAK :	MAILA :	GAITASUNAK :
Funtzioa	1 (« badakit »)	- objektu tekniko batek betetzen dituen funtzioak identifikatu.
Aterabide teknikoak	1 (« badakit »)	- zerbitzu funtzio bat betetzeko hautatua izan den aterabide teknikoa identifikatu.
	1 (« badakit »)	- objektu teknikoetan zerbitzu funtzio berdin bati erantzuten duten aterabide teknikoak konparatu.
	2 (« badakit aipatzen »)	- emandako zerbitzu funtzio bat betetzeko egitura edo muntaketa bat osoki edo parte batez aldatu.
Errealitatearen modelizazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinatzearen adierazpena.	2 (« badakit aipatzen »)	- oinarrizko bolumen baten maketa numerikoa gauzatu.
	2 (« badakit aipatzen »)	- bolumen sinple baten adierazpen numerikoa aldatu ordenagailuz lagundutako diseinua lantzeko programa baten bidez.

Oinarri bateratua

3	Zientzia eta teknologia desmarxta erabili	Burutu, manipulatu, neurtu, kalkulatu, aginduak bete.
3	Hainbat eremu zientifikoetan ezagutzak eta gaitasunak erabiltzen iakin	Objektu teknikoak : azterketa, diseinua

Argitu behar den 1. arazoa : zertarako eginak dira eraikinak ?

1. jarduera :

Iturri fitxako argazkiak ongi behatu ondoan, azpiko taula osa ezazu :

Argazkiak	Zein toki da zure ustez ?	Zeri esker toki hau identifikatu duzu ?
1		
2		
3		
4		
5		

2. jarduera :

Beti iturri-fitxa berdina erabiliz, 1., 2., 3. eta 6. argazkientzat hau zehaztuko duzu : *erabilera funtzioak* (erabiltzaile), *zerbitzu funtzioak*, eta *funtzio teknikoak* (diseinatzaile). Taula adibidearen arabera osatu.

Argazkia	Erabilera funtzioa : <i>zertarako da ?</i>	Zerbitzu funtzioa : <i>zer zerbitzuko ?</i>	Funtzio teknikoak : <i>nola diseinatua da ?</i>
1 tren geltokia	Trena bat hartu gerizan izanik.	<ul style="list-style-type: none">- Zabala izan- Harrera, txartelen salmenta, informazioak- Bidaiariak aterpetu- Bidaiarien seguritatea- Higienea- Komertzioak.	<ul style="list-style-type: none">- Eraikinaren dimentsioak- Sarrera, txarteldegia, bulegoak- Aterpea- Lurpeko pasabideak- Komunak- Ostatua, liburu-denda.
2			
3			
5			

Argitu behar den 2. arazoa : nolakoa izanen da eraiki nahi dudan oporretako etxea ?

Eman dezagun erabaki duzula berriki erosi duzun etxe-lurrean (etxeak eraikitzeko egina den lur-eremua edo orubea) kanpaleku berrezi bat antolatuko zenuela **oporretako etxolak** (edo **bungalow** delakoak) eraikiz, argazki honetan ikusten den bezala. Jadanik behar bada oporrak pasatu dituzu halako toki batean eta gisa bereko aterpea erabili duzu zure aita-amekin.



1- Funtzioak

– Zein da oporretako etxola honen **erabilera funtzioa** ?

– Oporretako etxola bizitoki berezia izanen da, denbora laburrez erabiliko dena : zein dira zure ustez bete beharko dituen **zerbitzu funtzioak** , eta hauei doazkien **funtzio teknikoak** ? Emandako adibidea ikusi eta, taula osatu.

Zerbitzu funtzioak	Funtzio teknikoak
- familia gerizatu	- euritik gerizatu - eguzkitik gerizatu - haizetik gerizatu

2- Aterabide teknikoak

Zerbitzu funtzio bakoitzarentzat **diseinatzailerak**, hots, objektu teknikoak asmatu eta sortuko duenak, beharraren arabera **aterabide tekniko** ezberdinak konparatu eta hautatuko ditu.

- "**Naturalki argitu**" funtzio teknikoak gauzatu :

zure etxea eta kolegioa adibidez hartuz, saia zaitez funtzio tekniko hau gauzatzeko izan daitezkeen aterabide tekniko ezberdinak zerrendatzen :

Funtzio teknikoak	Aterabide teknikoak
<i>Naturalki argitu</i>	

Argitu behar den 3. arazoa : nola oinarritzko bolumen baten maketa digitala gauzatu, nola bolumen sinple baten adierazpen digitala aldatu ordenagailuz lagundutako diseinua lantzeko programa baten bidez.

Lan hori **Sketchup** aplikazioaren bidez eramanen duzu zure taldeko lankideekin erakasleak emandako laguntza eta baliabide ezberdinak baliatuz.

